



ikastolak



LIZARRAKO IKASTOLA
LIZARRA



6. mailako ikasleak

IZASKUN ESPARZA, IBON RIPA, JOANE PELAEZ ETA ADUR ULIBARRENA

“Ez da gauza bera Lizarran edo Senegalen jaiotzea, gure bizimodua nahiko eroso da”



6. mailako ikasleek Lizarrako eta Senegaleko bizi-kalitatea neurtu eta konparatu dute. Alderaketa horretatik ateratako ondorioak hementxe dituzue.

📷 Lizarrako Ikastola

LIZARRA – Hobetu al dezakegu gure bizitza? Zer egin dezakegu egoera ahulean bizi direnei laguntzeko? Zein da gure bizi-kalitatea? Galdera hauei erantzutea izan dute helburu azken asteetan Lehen Hezkuntza 6. mailako neska-mutilek.

Erronka honetarako, ikerketa lan bateratua egin dute talde handian, eta inguruko zerbitzuak sakonki aztertu ondoren, beste herrialdeetako datuekin alderatu dituzte. Sudan edo Senegaleko herrialdeekin konparatuz aldaketa nabarmena dagoela jabetu direnez, azo-

ka solidario bat antolatzea bururatu zaie; lortutako diruarekin, haien hezkuntza baliabideei bultzada txiki bat emateko.

Honen inguruan hitz egiteko aukera izan dugu 6. mailako Izaskun Eparza, Ibon Ripa, Joane Pelaez eta Adur Ulibarrena ikasleekin.

Nola aztertu duzue gure bizi-kalitatea?

–Oinarritzko zerbitzuak aztertu ditugu hauen baldintzak baloratzeko. Zehazki, hezkuntza, osasuna eta udal zerbitzuak ikertu ditugu.

Zein izan da datuak lortzeko prozedura?

–Gure hezkuntza-sistemaren ezaugarriak ezagutzeko Lizarra Ikastolako zuzendariarekin hitz egin dugu. Osasun-arreta maila neurtzeko ospitaleko erizain batekin elkartu gara eta, azkenik, herri bateko udal zerbitzuen berri jasotzeko, Lizarrako alkatearekin topa-

Sudan edo Senegaleko herrialdeekin konparatuz aldaketa nabarmena dagoenez, azoka solidario bat antolatzea bururatu zaigu

Azokan lortutako diruarekin, herrialde hauetako hezkuntza baliabideei bultzada txiki bat emango diegu.

keta izan dugu udaletxean.

Lortutako emaitzek zer ondorioztatzen dute?

–Orokorrean, Lizarran, herrialde garatuen zerbitzuak eskaintzen dira. Nolabait gure bizimodua nahiko eroso dela esango genuke. Egunero ikastolara joaten gara gauza asko ikastera, gaixotzen garenean medikuak sendatzen gaitu eta gure herriko kaleak garbiak eta zurrak dira. Hau ez da munduko toki guztietan gertatzen.

Gure bizi-kalitatea beste herrialde batzuetako datuekin konparatzerakoan, zertaz ohartu zarete? Adibideren batekin azalduko zenukete?

–Ez da gauza bera Lizarran jaiotzea edo Senegalen. Hemen istripu baten ondorioz besoko hezurra hautsiz gero adibidez, ospitalera joan eta medikuen tratamenduekin hezurra osatu eta besoa berriro erabiltzeko aukera dugu. Aldiz, jakin izan dugu, Senegaleko

neskatxa batek besaurreko hezur bat hautsi ondoren, beso hori erabiltzeari utzi behar izan ziola, han besoa ondo sendatzeko (osatzeko) aukerarik ez zuelako izan. Azken finean, baldin eta non jaio, modu batean edo bestean bizi izateko aukera izango da.

Zer egin dezakegu egoera ahulean bizi direnei laguntzeko?

–Haien baliabideak horren murriztak direnez, guri azoka solidario bat egitea bururatu zaigu, lortzen dugun diruarekin Senegaleko hezkuntza baliabideak hobetzeko. **Zer erosi ahalko dugu azoka solidarioan?**

–Matematika ikasgaiaren eskumuturrekoak egiten ikasi dugu, hiru kolore erabiliz, hauen konbinaketa posible guztiak gauzatuz. Inglesa ikasgaiaren sandwich-ak prestatzen aritu gara. Gainera, bakoitzak, balio pertsonala duen objektuaren bat salmentan jarriko du, baita liburuak eta eskulanak ere. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zein bi herrialdeetako egoerarekin alderatu dute ikasleek Lizarra?
 2. Norekin hitz egin zuten ikastolako hezkuntza-sistemaren ezaugarriak ezagutzeko?
 3. Zer salduko dute azokan?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Udane Aristizabal (Andra Mari Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Nahia Urzaiz (Baztan Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Aritz Sádaba (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezela, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.